

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Berriz irekitzea Gasteizko 15. sektoreko “Ekialdeko 3.zabalpena-Salburuko parkea” plan partzialaren seigarren xehetasun-aldaketa jendaurrean erakusteko epea

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran:

1. 15. sektoreko “Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea” plan partzialaren seigarren aldaketa jendaurrean erakusteko epea berriz irekitzeko erabakia ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikulua aurreikusitako moduan; eta dosierra jendaurrean erakusteko 25 egun balioduneko epea irekitzea.

2. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari erabakiaren berri ematea —dosierra zuzendu dela jakinarazteko, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko iritzia eman dezan eskatzeko—, bai eta Betoñuko Administrazio Batzarrari ere.

3. Honen berri ematea aurrerapen-dokumentua idazteko kontsultatu diren entitateei (Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza, Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; Ebroko Konfederazio Hidrografikoa; Uraren Euskal Agentzia; Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza eta Ingurumen Zuzendaritza; Ekologistak Martxan Alava, Hontza Natura Taldea, GADEN (Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldea) eta Recreativa Eguzkizaleak), haiek egoki baderitzote, alegazioak berriz aurkez diezazkieten hasierako onespina eman zaion agiriari, horretarako 25 eguneko epea emanaz.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua— egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 17an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE